

EREDUA, EUSKO JAURLARITZAKO ERAKUNDEEK PLAN ESTRATEGIKOAK EGIN DITZATEN

Gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan juridikoki maila berean dauden bi hizkuntza ofizial ditugun arren, eguneroko praktikan ez daude maila berean. Desoreka hori kontuan izanik, Eusko Jaurlaritzak sustapen ekintzak jarri behar ditu abian, batetik, herritar guzti-guztien hizkuntza-eskubideak bermatzeko, eta bestetik, gure erakundeetan euskararen erabilera bultzatzeko; izan ere, legediak argi eta garbi esaten du hizkuntza-eskubideak herritarrarenak direla eta obligazioak, ostera, gureak, administrazioarenak.

Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-politika egiteko beharrizan hori planen bitartez gauzatzen dugu aspalditik eta, VII. plangintzaldian sartu berri garenez eta Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde bakoitzari bere plan estrategikoa diseinatzea, onartzea eta abian jartzea tokatzen zaionez, Gobernuak eredu hau eskaini nahi du, den-denek kontuan har dezaten euren plan estrategikoak egiterakoan.

Aurrera jarraitu baino lehen, hiru ohar:

Lehena: dokumentu honetan, “Eusko Jaurlaritza” aipatzen den guztietan ulertu behar da izen horren azpian daudela Jaurlaritza osatzen duten erakunde guztiak: Eusko Jaurlaritzako sailak, haren erakunde autonomiadunak, haren administrazio instituzionala (zuzenbide pribatuko ente publikoak) eta haren ente instrumentalak (sozietate publikoak, partzuergoak eta fundazio publikoak).

Bigarrena: eskaintzen dugun eredu hau ez da, berez, Eusko Jaurlaritzaren plan estrategikoa, baizik eta marko orokor bat, gerora gure sailek eta erakundeek, horretan oinarrituta, beren plan estrategiko propioak diseinatu ditzaten, norberaren diagnostikoa eta hizkuntza egoera kontuan izanik. Beraz, sail eta gainerako erakunde guztiei dagokie beren-beregiko plan estrategiko horiek prestatu eta onartzea, plangintzaldiko lehen urtea amaitu baino lehen eta eredu honi jarraituz.

Hirugarrena: plan estrategikoak diseinatzeko eredu hau euskararen normalizazioari begira eginda dago, izan ere bistan da gaztelaniak ez duela horren beharrik; hori dela-eta, ereduan euskara honako edo halako esparruetan erabili behar dela esaten denean jakintzat ematen da esparru horietan gaztelania betidanik erabiltzen dela normaltasun osoz.

Eusko Jaurlaritzako erakundeek garatu beharreko plan estrategikoen iraupena bost urtekoa izango da: 2023ko urtarrilaren 1ean hasi eta 2027ko abenduaren

31n amaitu. Planean erakunde bakoitzak, bere abiapuntuko egoera zein den aztertu ondoren, plangintzaldirako helburuak zeintzuk izango diren zehaztuko du, baita zelako emaitzak espero dituen bitarte hori igarotakoan ere. Helburuak —nahiz aurreikusitako emaitzak— lorgarriak izan behar dira, bai; baina, aldi berean, erronkagarriak erakundearentzat.

Plangintzaldiko abiapuntuko egoerari antzemateko, diagnostiko zehatza egin beharra dago. Horretarako, VI. Plangintzaldiaren amaierako ebaluazioa erabiliko da; izan ere, emaitza horiei esker jakingo dugu zertan diren gaur egun gure adierazleak, eta bost urterako aurreikuspenak egin ahal izango ditugu. Dena den, bosturteko honetan, kudeaketari lotutako adierazle berriak izango ditugunez, diagnostiko hori zenbait informazio berriekin osatu beharko dugu.

Erakundearen argazkia zein den jakiteko, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) Euskal Sektore Publikoaren esku jarritako aplikazioa erabili ahal izango dute une honetan diagnostikorik ez duten erakundeek.

Nolanahi ere, hau ez da lehenengo plangintzaldia, zazpigarrena baizik, eta datuei erreparatuta, baikorrak izateko arrazoiak badaude: gure langileak gero eta elebidunagoak dira eta euskararen presentzia eta erabilera gero eta ohikoagoa da gure erakundeetan.

Orain arte erabilitako kudeaketa sisteman ere hutsuneak badaude; esate baterako, askotan, planei jarraipena egiteko ardura Eusko Jaurlaritzatik kanpoko enpresen eskuetan utzi izan dugu, eta ebaluazioak aldian behin egiten direnez, unean uneko datuak falta zaizkigu behin baino gehiagotan.

Demari arrakastaz ekiteko, HPSk —Erkidegoko erakunde amankomuna den aldetik— plangintzaldi honetarako hainbat tresna eta lanabes jarriko ditu Eusko Jaurlaritzaren esku, eta baita Euskal Sektore Publiko osoaren esku ere. Tresna horiek guztiak sistematika berri baten inguruan eraikita daude: KEMEN.

KEMEN (*Kudeaketa eta Erabilera Markoa Euskararen Normalizaziorako*) Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak VII. Plangintzaldi honetarako berariaz landu duen marko estandar berria da, eta hizkuntza ofizialen kudeaketa erakundeetako kudeaketa orokorrean txertatzeko beharrizanean du oinarria; alde horretatik, KEMEN izango da Sektore Publikoko erakundeek euren erabilera planak egiteko erabiliko duten tresna. Marko berri hau, jakina, Bikaineekin lerrokatuta dago.

Edozein modutan ere, euskara planak arrakastatsuak izateko, plana bera izateaz gain, beste baldintza batzuk ere bete behar dira halabeharrez:

Alde batetik, sail eta erakunde bakoitzaren baitan euskararen kudeaketarako batzorde bat sortu beharra dago, agintari politikoek, agintari teknikoek eta langileek osatutakoa, zeharkakoa, eta erabakitzeko ahalmena duena. Batzorde horren ardura izango da, besteak beste, kudeaketa orokorraren barruan txertatzea euskararen kudeaketa, planak diseinatzea, abian jartzea eta ebaluatzea. Zer esanik ez, Eusko Jaurlaritzako arduradun politikoek lidergoa eta gidaritza erakutsi behar dute euren sailetakoa hizkuntza-politikan.

Bestetik, sail eta erakunde bakoitzak prozesua kudeatzeko sistematika bat jarri behar du martxan: erakundearen egoera edo abiapuntua aztertu, helburuak adostu, helburu horiek lortzeko ekintzak antolatu eta abian jarri eta, batez ere, prozesua aldian behin ebaluatu eta, beharrezkoa denean, egokitzapenak egin hasierako planteamenduan.

Gainera, kontuan hartu behar da planak aurrera eramateko guztion adostasuna, inplikazioa eta elkarlana behar direla. Erakundeak konpromiso batzuk hartu behar ditu langileekiko, eta langileek (politikoek zein teknikariek) konpromiso batzuk hartu behar dituzte euskararen erabilerarekiko.

Ikus daitekeenez, aipatutako hiru elementu horiek: egitura, sistematika eta adostasuna kudeaketari dagozkio, kudeaketak eragin zuzena baitu erabileran; nolana ere, ezin da ahaztu kudeaketa, berez, ez dela helburua, baizik eta lanabesa, benetako helburua lortzeko: euskararen erabilera igotzea. Kudeaketa ez da bakarrik euskara batzorde bat edukitzea, batzorde horrek aldian behin bilerak egitea, euskara plan bat onartzea... eta hor bukatzea lana. Ez, lana ez da hor bukatzen: lana hor hasten da, prozesu hau ez baita inoiz amaitzen, ez baita inoiz gelditzen. Beti geratzen da hobekuntzarako tarte bat, eta euskararen kasuan, hobekuntza tarte handia daukagu geure aurrean.

Erabilera-planak guztion artean eraiki behar ditugu, egunez egun, elkartasunez, eskuzabaltasunez, guztion partehartze aktiboarekin, agintariak eta langileak, den-denak beharrezkoak baitira Eusko Jaurlaritzan euskararen erabilera bultzatzeko. Euskarak eguneroko praktikan lekua izan dezan, adostasuna, elkarlana, langileekiko komunikazioa eta hauen konpromisoa bultzatu behar dira.

Hurrengo plangintzako erronketako bat datu horiek sexuaren arabera bereizita biltzea eta ustiatzea izango da, ikusteko zer neurritan egon daitezkeen genero-desberdinkeria esanguratsuak euskararen erabileran, sustapenean, lidergotzan, kudeaketan eta abarretan.

Bestalde, ardatz honen beste erronketako bat izango da zeharkako beste politika batzuekiko (berdintasuna, kalitatea, eta abar) elkarlana sustatzea; normalizazio-politiken inplementazioa indartzeko, gainerako zeharkako politikekin batera.

Azkenik, esan beharra dago VII. Plangintzaldi honetan, ehundaka langilek hartuko dutela ondo merezitako erretiroa, eta beste batzuk, aldiz, hasi egingo direla lanean aurrekoek utzitako lanpostuetan. Etorri berri gehienak, guztiak ez badira, euskaldunak izango dira, eta euskaraz lan egiteko eskubidea bermatu behar zaie, herritarrei edozein hizkuntza ofizialetan artatuak izateko eskubidea bermatu behar zaien bezalaxe. Bihur ditzagun, denon artean, eskubide horiek errealitate.

VII. PLANGINTZALDIA (2023-2027)

PLAN ESTRATEGIKOAREN IZENA:

Eusko Jaurlaritzan euskararen erabilera normalizatzeko Plan Estrategikoa.

BISIOA:

Plangintzaldiaren amaierarako Eusko Jaurlaritzak administrazio erabat elebiduna izan nahi du, herritarren hizkuntza eskubideak oso-osorik bermatzeaz gain, euskaraz eroso lan egitea ziurtatzen duena.

Horretarako, Eusko Jaurlaritza kudeaketa aurreratuaren bidetik abiatuko da, ordezkari politiko eta teknikoen lidergoan oinarrituta.

EGOERA:

VI. Plangintzaldiko amaierako ebaluazioaren (2022) datu nagusiei erreparatuta, hau da Eusko Jaurlaritzaren egoera, labur-labur:


Indarguneak:

- Langileen hizkuntza-gaitasuna inoiz baino altuagoa da; izan ere, langileen % 91k egiaztatu du hizkuntza-eskakizunen bat.
- Agintari politiko askok ere gaitasuna du, neurri batean edo bestean, euskaraz lan egiteko (% 74,3k ulertzen du eta % 65,2 euskaraz hitz egiteko gai da).
- Erabilerak gora egin du nabarmen hainbat esparrutan, hala nola: herritarrei bidalitako dokumentazioa (% 77), eskaintza aktiboa (% 64,3; 19,1 puntuko igoera), herritarrei erantzuteko erabilitako hizkuntza (% 37,9; 3,7 puntu gora), barne harremanetarako idazkiak (% 86,3; 40,2 puntu gora), eta lankideen arteko hizkuntza (% 40,6; 5,2 puntu gora), besteak beste.

Ahuleziak:

- Kudeaketa alorrean euskararen sustapena ziurtatuko duen zerbitzuburu eta ordezkari politikoek inplikazioa ez da behar bezain handia. Euskararen erabileraren normalizazio-prozesua sistematikoki kudeatzeko prozedura ez dago behar bezala ezarrita.
- Oraindik ere bidea egin behar da euskara zeharlerro estrategikoa izateko.
- Ez gara gai herritarren hizkuntza eskubideak bete-betean bermatzeko, ez ahoz, ez idatziz (idatziz, % 11,1ean huts egiten dugu, eta ahoz % 22,8an).
- Aplikazio informatikoen euskararen erabilera oso urria da (% 72,8 gaztelaniaz beti edo gehienetan) eta langileek jasotzen duten prestakuntzako datuak ere ez dira onak (% 71,8 gaztelania hutsez edo gaztelaniaz gehiago).
- Bilerak gaztelaniaz egiten dira nagusiki.
- Dokumentu luzeak gaztelaniaz idazten dira gehienbat.
- Erakunde batzuetan langileek ez dute aukera handirik euskaraz lan egiteko.

PLAN ESTRATEGIKOAREN EGITURA - KEMEN



KEMENek edozein erakunde motatan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua modu antolatu eta eraginkorrean kudeatu eta jarraipena egiteko markoa eta metodologia hartzen ditu barne. Hots, hizkuntzen erabilera kudeatzeko ardatz, eremu eta arlo posibleak jasotzen ditu horien neurketa ahalbidetzen duten adierazleak, eta horiek neurtzeko euskarri eta azalpenak. Hortaz, euskararen normalizazio-prozesua kudeatzeko gako eta baliabideak ematen dituen sistema integrala da, honako hauek zutabetzat hartzen dituenak:

- Euskararen erabilera sustatzera bideratutako kudeaketa.
- Zeharlerrotasuna.
- Erabilera plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoaren beharra.
- Erakundeko kargudunen eta arduradunen inplikazio eta lidergoa.

Kudeaketa eta erabilera markoa euskararen normalizaziorako- KEMEN

1. ardatza. KUDEAKETA

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa

Ardatzari dagokion taula bete gabe dago haztapena egiteko datuak falta direlako; datu hauek 2023an zehar jasoko ditugu eta beraz, aurreikuspen bat egiteko aukera izango dugu.

ARDATZAREN ARABERAKO ERRONKA

Euskararen kudeaketa Eusko Jaurlaritzako ohiko kudeaketaren barruan txertatzea, arduradun politiko eta teknikoaren eta langileen partehartze aktiboa baliatuta.

ARLOEN ARABERAKO HELBURU ESTRATEGIKOAK

1.0.1. arloa

- Plan estrategikoak eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratuaren eraginkortasuna areagotu eta jarraipen sistematikoa egitea bai planei eta baita hizkuntza irizpideei ere.

1.0.2. arloa

- Plan estrategiko eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratuaren eraginkortasuna areagotu eta zuzendaritza batzordeko kideen parte-hartze aktiboa sustatzea planek barne-hartzen dituzten urrats guztietan; hau da, diseinuan, garapenean, jarraipenean eta egokitzapenean.
- Arlo bakoitzeko pertsonak izendatzea dagozkien adierazleei buruzko datuak biltzeko.
- Langile eta arduradun guztiei hizkuntza-irizpideak helaraztea eta haien lanpostuan nola aplikatu behar dituzten azaltzea komunikazio eraginkorraren bitartez.
- Eusko Jaurlaritzako arduradun politiko eta teknikoak proaktibotasunez aritzea plan estrategiko eta kudeaketa-planen kudeaketan.

1.0.3. arloa

- Sailetako zuzendaritza-batzordeek onartutako plan estrategikoak eta kudeaketa-planak langileei jakinarazi eta helburuak lortzeko lanabes guztiak haien eskura ipintzea.
- Sailek planaren eta hizkuntza-irizpideen inguruko informazio zehatza ematea langileei, euren iritzia aintzat hartuz, plana ezagutu eta dagozkien betekizunak egin ditzaten.

1.0.4. arloa

- Derrigortasun datak jartzea bezain garrantzitsua da langileen benetako hizkuntza gaitasuna bermatzea; eta horretarako biderik eraginkorrena, hizkuntza-prestakuntzarekin batera, langile horiek euskaraz lanean jartzea da. Horretarako, atea zabaldu beharko litzateke arduradun politikoek ere euskarazko hizkuntza-prestakuntza jaso ahal izan dezaten.

1.0.5. arloa

- Eusko Jaurlaritzak normalizaziorako estrategia komunikatzea herritar eta interes-taldeei, eta hizkuntza-kudeaketaren alorreko beste esperientzia batzuk partekatzeko ekimenetan parte hartzea.

1.0.6. arloa

- Kontratuetan, dirulaguntzetan eta hitzarmenetan hizkuntza-klausulak ezartzea eta jarraipenerako sistema zehaztea eta gauzatzea, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko.

1.0.1 arloa. EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA

Arloaren balorazioa eta aurreikuspen kuantitatiboak:

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa

Arloari dagokion taula bete gabe dago haztapena egiteko datuak falta direlako; datu hauek 2023an zehar jasoko ditugu eta beraz, aurreikuspen bat egiteko aukera izango dugu.

Egoera:

- Eusko Jaurlaritzan badago Hizkuntza Ofizialen Batzorde Iraunkor bat, sail guztiak barne hartzen dituena.
- Jaurlaritzako erakunde edota sail gutxi batzuek daukate planen kudeaketarako sistema egituratu propioa.

Egindakoak:

- Erakunde eta sail guztietan plan estrategikoak eta kudeaketa-planak badaude eta horiei jarraipena egiten zaie (% 100), batez ere hizkuntza normalizaziorako teknikarien ekimenez.
- Eusko Jaurlaritzak 2021eko apirilaren 13an onartu zituen Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak eta erakunde osoari eragiten diote.
- Hizkuntza Ofizialen Batzorde Iraunkorra, gutxienez, urtean bietan biltzen da.

Indarguneak:

- Eusko Jaurlaritzako euskararen plan estrategiko eta kudeaketa-plan guztiei jarraipena egiten zaie, eta emaitzak Batzorde Iraunkorrean partekatzen dira.
- Modu koordinatuan lan egiten da, bai maila teknikoan baita maila politikoan ere.

Zer hobetuak:

- Gaur egun dauden batzordeak ez dira behar bezain eraginkorrak eta, ondorioz, askotan kudeaketaren zamarik astunena hizkuntza normalkuntza teknikariaren (HNT) gain geratzen da. Erakunde eta sailek plan estrategikoak eta kudeaketa-planak diseinatzeko, garatzeko eta jarraipena egiteko sistema egituratu bat behar dute, bakoitzaren egoerari egokitutakoa.
- Erakunde eta sailetako egitura dekretuetan jasota egon beharko lirateke jarraipen-batzordearen osaera eta funtzioak.
- Erakunde eta sail guztietan arduradun politiko eta teknikoren batek heldu beharko lioke lidergoari.
- Euskararen kudeaketa ez dago oraindik guztiz txertatua (% 56,1) Eusko Jaurlaritzaren kudeaketa-sistema orokorrean. Funtzionamendu eraginkorrari eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeari begira, helburuak % 100ean txertatuta egotea izan behar du.

Helburu estrategikoa(k):

- Plan estrategikoa eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratuaren eraginkortasuna areagotu eta jarraipen sistematikoa egitea bai planei eta baita hizkuntza irizpideei ere.

1.0.1 arloaren adierazleak

1.0.1.1	Erakundeak plan estrategiko eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du	Helburua (H.1.0.1.1)	Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
			%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
			100		100		0	
			Datu hau Eusko Jaurlaritzari dagokio Hizkuntza Ofizialen Batzorde Iraunkorra baitu. Erakunde edo sail bakoitzak neurtu beharko du zenbateraino duen horrelako egitura egonkor edo eraginkorra planen kudeaketarako.					
1.0.1.2	Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da	Helburua (H.1.0.1.2.)	Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
			%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
			Datu hauek 2023an zehar eskuratuko dira.					

1.0.2 arloa. LIDERGOA

Arloaren balorazio eta aurreikuspen kuantitatiboak:

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa

Arloari dagokion taula bete gabe dago haztapena egiteko datuak falta direlako; datu hauek 2023an zehar jasoko ditugu eta beraz, aurreikuspen bat egiteko aukera izango dugu.

Egoera:

- Zuzendaritza batzordeko kideek plan estrategiko eta kudeaketa-planen nolabaiteko parte hartzea lortu da, baina horien proaktibotasuna aldatu egiten da erakunde eta sail batetik bestera.
- Sail guztietan egiten zaie jarraipena planei, baina zuzendaritza-batzordeko kideen partehartzea jaitsi egiten da hausnarketa prozesuak edota planen diseinua egin behar denean.

Egindakoak:

- HPS zuzendari guztiekin bildu zen VI. Plangintzaldiaren hasieran, metodologia berria azaldu eta lidergoa lantzeko.
- Liderren koordinazioa Jarraipen Batzordearen bitartez egiten da.

- Liderrentzako pilulak zabaldu ziren, euskara kudeaketan nola txertatu azaltzeko; pilula horiek bileretan eta AriGara plataformaren bidez zabaldu eta eskuragarri jarri ziren.

Indarguneak:

- Plan estrategiko eta kudeaketa-planen bileretako asistentzia ona da liderren artean, eta askok planen diseinuan ere parte hartzen dute.

Zer hobetuak:

- Prozesua goitik beherakoa izan behar da. Liderren parte-hartzeak handiagoa izan beharko luke planaren fase bakoitzean; diseinuan, garapenean eta, batez ere, jarraipenean eta egokitzapenean.
- Oraindik ere liderren inplikazioa handiagoa izan behar da, batez ere, planen jarraipenean.
- Lider teknikoei ere ardura handiagoa eman behar zaie planaren fase bakoitzaren garapenean.
- Liderren erantzukizuna areagotzen den heinean, hizkuntza normalizazioko teknikariari planen ekintzen eta betetze-mailaren ardura arindu egin beharko litzaioke.
- Ardurak zerrendatu eta argi eta garbi banatu behar dira (nork zer egin behar duen, noizko eta nola) eta horren jarraipenerako prozedura ezarri (betetze-maila neurtu). Horretarako, ezinbestekoa da prozedurak ondo zehaztea.
- Hizkuntza-normalizazioko planen lidergoan genero-desberdinkeriarik dagoen identifikatu behar da.

Helburu estrategikoa(k):

Plan estrategiko eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratuaren eraginkortasuna areagotu eta zuzendaritza-batzordeko kideen partehartze aktiboa sustatzea planek barne-hartzen dituzten urrats guztietan; diseinuan, garapenean, jarraipenean eta egokitzapenean.

Arlo bakoitzeko pertsonak izendatzea dagozkien adierazleei buruzko datuak biltzeko.

Langile guztiei hizkuntza-irizpideak helaraztea eta haien lanpostuan nola aplikatu behar dituzten azaltzea komunikazio eraginkorraren bitartez.

Eusko Jaurlaritzako arduradun politiko eta teknikoak proaktibotasunez aritzea plan estrategiko eta kudeaketa-planen kudeaketan.

1.0.2 arloaren adierazleak

1.0.2.3	Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa-planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean	Helburua (H.1.0.2.3)	Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
			%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
			49.43		55		5.57	

1.0.2.4	Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan finkatutako helburuak bete daitezzen	Helburua (H.1.0.2.4)	Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea		
			%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	
			Datu hauek 2023an zehar eskuratuko dira.						
1.0.2.5	Izendatutako arduradunek dagozkien adierazleen datuak biltzen dituzte, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan zehaztutako moduan	Helburua (H.1.0.2.5)	Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea		
			%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	
			Datu hauek 2023an zehar eskuratuko dira.						

1.0.3 arloa. LANGILEAK

Arloaren balorazio eta aurreikuspen kuantitatiboak:

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa

Arloari dagokion taula bete gabe dago haztapena egiteko datuak falta direlako; datu hauek 2023an zehar jasoko ditugu eta beraz, aurreikuspen bat egiteko aukera izango dugu.

Egoera:

- Langileek badaukate Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideen (HOEI) eta baita erakunde edo saileko planaren berri ere.

Egindakoak:

- Langile guztiei eman zitzaizen HOElen berri eta komunikazio kanpaina ere egin zen. Guztientzat eskuragarri egon dira euskarri fisiko (kartelak, arkatx-potoak,...) eta digitalak.
- Sail gehienetan Plan Estrategikoaren aurkezpena egin zen, zuzendaritzak eta ordezkariak.

Indarguneak:

- Langileen hizkuntza-irizpideen ezagutza-mailak 12 puntu egin du gora; betetze-mailak, 13.

Zer hobetuak:

- Plan estrategikoetan eta kudeaketa-planetan zehaztutako eginkizunak zuzendaritzak lantzea, langileei jakinaraztea eta horien betetze-mailari jarraipena egitea.
- Hizkuntza irizpideei dagokienez, oraindik ere ezagutza-maila ez da % 100era heltzen; beraz, aldiro-aldiro irizpideak zabaltzeko behar dira.

- ## Helburu estrategikoa(k):

Sailek planaren eta hizkuntza-irizpideen inguruko informazio zehatza ematea langileei, euren iritzia aintzat hartuz, plana ezagutu eta dagozkien betekizunak egin ditzaten.

1.0.3.6	Langileei ematen zaie informazioa erakundeko erabilera planari eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten.	Helburua (H.1.0.3.6)	Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea		
		%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa		
		83.2		90		6.8			
1.0.3.7	Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte.	Helburua (H.1.0.3.7)	Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea		
		%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa		
		76		85		9			
1.0.3.8	Langileek betetzen dituzte kudeaketa-planeari adostutako eginkizunak.	Helburua (H.1.0.3.8)	Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea		
		%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa		
Datu hauek 2023an zehar eskuratuko dira.									
1.0.3.9	Langileek parte hartzen dute kudeaketa-planeari zehaztutako sustapen-ekintzetan.	Helburua (H.1.0.3.9)	Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea		
		%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa		
		29.3		35		5.7			
1.0.3.10	Langileek iritzi positiboa dute euskararen erabilerak erakundean duen bilakaeraz.	Helburua (H.1.0.3.10)	Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea		
		%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa		
		46.9		50		3.1			
Bilakaerari buruz iritzi positiboa dutenen artean, bi alderdi bereizi behar dira; alde batetik, asko edo nahikoa egin dela uste dutenak (% 51.7) eta bestetik, gutxiegia egin dela uste dutenak (% 21).									

1.0.4.1 3	Arduradun politikoak gai dira postuaren funtzioak euskaraz betetzeko.	Helburua (H.1.0.4.13)	Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
			%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
			69.9		75		5.1	

1.0.5 arloa. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA

Arloaren balorazio eta aurreikuspen kuantitatiboak:

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa

Arloari dagokion taula bete gabe dago haztapena egiteko datuak falta direlako; datu horiek 2023an zehar jasoko ditugu eta, beraz, aurreikuspen bat egiteko aukera izango dugu.

Egoera:

- Erakundearen barnean euskararen erabilera areagotu eta normalizatzeko estrategia komunikatu da. Herritarrei, ordea, ez zaie zabaldu, oro har.

Egindakoak:

- Orain arte, bai HPSk eta baita sailek ere, euskararen normalizazio-prozesuak erakundearen barnean duen estrategia helarazi diete langileei.
- Euskararen normalizazioari begira, hainbat ekimen jarri dira martxan; hala nola AriGarako ikastaroak, Udaltop, praktika onen bilatzailea eta Lehendakartzan euskararen normalizazioan egindako ibilbidearen sistematizazioa.

Indarguneak:

- Langile guztiek daukate euskararen normalizaziorako estrategiaren berri.
- Sail batzuetan langile heldu berriak daudenean, HNTak azaltzen die nola jokatu behar duten euskararen erabilerarako.
- Sail batzuetan, pertsona berriei harrera egiteko protokolo bat egiten da. Bertan, saileko berdintasun-politiken eta hizkuntza-normalizazioko politiken berri ematen zaie.

Zer hobetuak:

- Eskaintza aktiboa egin behar da bai herritarrek eta baita interes-taldeek ere guregana euskaraz jo dezaten. Horretarako, erakundeek beren strategiaren berri eman beharko liekete.
- Erakundeek eta sailek hizkuntzaren inguruko praktikak ezagutu eta zabaldu beharko lituzkete, beste erakunde batzuentzat baliagarriak izan daitezzen.

Helburu estrategikoa(k):

Eusko Jaurlaritzak normalizaziorako estrategia komunikatzea herritar eta interes-taldee, eta hizkuntza-kudeaketaren alorreko beste esperientzia batzuk partekatzeo ekimenetan parte hartzea.

1.0.5 arloaren adierazleak

1.0.5.1 4	Erakundeak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritar eta interes-taldee.	Helburua (H.1.0.5.14)	Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
			%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
			Datu hauek 2023an zehar eskuratuko dira.					
1.0.5.1 5	Erakundeak beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta partekatzeo ekimenetan parte hartzen du.	Helburua (H.1.0.5.15)	Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
			%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
			Datu hauek 2023an zehar eskuratuko dira.					

1.0.6 arloa. HIZKUNTZA-KLAUSULAK

Arloaren balorazio eta aurreikuspen kuantitatiboak:

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa

Arloari dagokion taula bete gabe dago haztapena egiteko datuak falta direlako; datu hauek 2023an zehar jasoko ditugu eta beraz, aurreikuspen bat egiteko aukera izango dugu.

Egoera:

- Gaur egun, oro har, hizkuntza-klausulak administrazio-pleguetan txertatzen dira, baina ez zaie jarraipenik egiten kexarik edota arazorik egon ezean.
- Dirulaguntzetan eta hitzarmenetan gutxiago txertatzen dira hizkuntza-klausulak, eta jarraipena ere, ez zaie behar bezala egiten.

Egindakoak:

- 2021ean Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak onartu ziren eta bertan, hizkuntza-klausulak noiz eta nola txertatu behar diren adierazten da.
- 2016ko apirilaren 26ko Aginduan adierazten da plegu administratiboetan hizkuntza-klausulak nola txertatu behar diren.

Indarguneak:

- Kontratazioarako izapideetan plegu administratibo guztietan txertatzen dira hizkuntza-klausulak.
- Azken urte hauetan egindako lanaren ondorioz, gero eta dirulaguntza eta hitzarmen gehiagotan txertatzen dira hizkuntza-klausulak.
- Sailen batean barne-lantalde bat sortu da, arlo juridikoaz, euskara-teknikariak, berdintasun-teknikariak eta kargu politikoez osatua. Talde horretan, sailaren kontratu handiak batera aztertzen dira, kontratu horietan genero-ikuspegia eta hizkuntza-ikuspegia txertatzeko. Berdintasun-klausulak eta hizkuntza-klausulak txertatzetik haratago joan nahi da.

Zer hobetuak:

- Hizkuntza-klausulen betetze-mailari jarraipen estuagoa egin behar zaio eta, bete ezean, beharrezko neurriak hartu.
- Kontratazio, dirulaguntza eta hitzarmenez arduratzen diren langileei hizkuntza-irizpideei buruzko prestakuntza eman behar zaie, HOElak ezarri eta betearazteko.

Helburu estrategikoa(k):

Kontratuetan, dirulaguntzetan eta hitzarmenetan hizkuntza-klausulak ezartzea eta jarraipenerako sistema zehaztea eta gauzatzea, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko.

1.0.6 arloaren adierazleak:

1.0.6.1 6	Kontratueta hizkuntza- klausulak txertatzen dira.	Helburua (H.1.0.6.16)	Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
			%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
			Datu hauek 2023an zehar eskuratuko dira.					
1.0.6.1 7	Dirulaguntza eta hitzarmenetan hizkuntza- klausulak txertatzen dira.	Helburua (H.1.0.6.17)	Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
			%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
			Datu hauek 2023an zehar eskuratuko dira.					
1.0.6.1 8	Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratueta hizkuntza- klausulen betetze-mailari.	Helburua (H.1.0.6.18)	Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
			%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
			Datu hauek 2023an zehar eskuratuko dira.					

1.0.6.1 9	Jarraipen sistematikoa egiten zalo dirulaguntza eta hitzarmenetako hizkuntza- klausulen betetze-mailari.	Helburua (H.1.0.6.19)	Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
			%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
		Datu hauek 2023an zehar eskuratuko dira.						

2. ardatza. ERABILERA

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa

Ardatzari dagokion taula bete gabe dago haztapena egiteko datuak falta direlako; datu hauek 2023an zehar jasoko ditugu eta beraz, aurreikuspen bat egiteko aukera izango dugu.

ARDATZAREN ARABERA KO ERRONKA(K)

Eusko Jaurlaritzak herritaren hizkuntza-eskubideak bermatzea eta euskarazko barne- eta kanpo-harremanak areagotzea.

ARLOEN ARABERAKO HELBURUAK



2.1. eremua. ZERBITZU-HIZKUNTZA

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
73.5		100		26.5	

2.1.1 arloa. IRUDIA

Arloaren balorazio eta aurreikuspen kuantitatiboak:

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa

Arloari dagokion taula bete gabe dago haztapena egiteko datuak falta direlako; datu hauek 2023an zehar jasoko ditugu eta beraz, aurreikuspen bat egiteko aukera izango dugu.

Egoera:

- Gaur egun, ele bietan dauden errotulu finkoen kopurua % 100 da.
- Agerraldi instituzionalen % 66a egiten da euskaraz edo ele bietan.

Egindakoak:

- Sistematizatuta dago argitaratu behar den guztiak egon behar duela ele bietan.
- Agerraldi instituzionaletan, 2017tik euskararen presentziak 20 puntu egin du gora.

Indarguneak:

- Hizkuntza paisaia ele bietan dago ia osorik.

Zer hobetuak:

- Behin-behineko errotulu eta argitalpenek euskaraz ere egon behar dute % 100ean.
- Agerraldi instituzionaletan, euskararen presentzia eta erabilera areagotu egin behar da.

Helburu estrategikoa(k):

Behin-behineko errotulazioan arreta ipintzea gaztelania hutsezko errotulurik jar ez dadin.

Agerraldi instituzionaletan euskara eta gaztelaniaren erabilera orekatua bermatzea.

Erakundeak irudiari dagozkion hizkuntza-irizpideak betetzea, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko eta hizkuntza berdintasuna lortzeko.

2.1.1 arloaren adierazleak:

2.1.1.2 0	Erakundearen errotuluak (finkoak zein behin-behinekoak), eta ikus-entzunezkoak euskaraz daude.	Helburua (H.2.1.1.20)	Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
			%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
			100		100		0	
2.1.1.2 1	Erakundearen argitalpen, iragarki eta publizitatea euskaraz daude.	Helburua (H.2.1.1.21)	Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
			%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
			91.8		100		8.2	
2.1.1.2 2	Erakundeak euskara erabiltzen du agerraldi instituzionaletan.	Helburua (H.2.1.1.22)	Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
			%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
			65.5		100		34.5	
2.1.1.2 3	Erakundeak euskaraz dauka webgunea eta sare sozialak.	Helburua (H.2.1.1.23)	Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
			%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
			98.3		100		1.7	

2.1.2 arloa. HERRITARREKIKO HARREMANAK

Arloaren balorazio eta aurreikuspen kuantitatiboak:

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa

Arloari dagokion taula bete gabe dago haztapena egiteko datuak falta direlako; datu hauek 2023an zehar jasoko ditugu eta beraz, aurreikuspen bat egiteko aukera izango dugu.

Egoera:

- 10etik 6,5ean euskarazko eskaintza aktiboa egiten zaie herritarrei.
- Herritarrek dokumentuak euskaraz aurkezten dituztenean % 58,6an euskara hutsez jasotzen dute erantzuna.

Egindakoak:

- Hizkuntza-irizpideak zabaldu ditugu, herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatu daitezzen.
- Herritarrei arreta emateko protokoloa eginda eta zabaldua dago.

Indarguneak:

- Euskarazko eskaerei euskaraz emandako erantzunen kopuruak 7 puntu egin du gora; plan estrategiko eta kudeaketa-planetan zerbitzu hizkuntzari lehentasuna ematen bazaio eta beharrezko ekintzak abian jartzen badira, erraza da adierazle horrek gora egitea.

- Zer hobetuak:**

- Zerbitzu-hizkuntza izanda, herritarren hizkuntza-eskubideak % 100ean bermatu behar dira. Oraindik ere, ahozkoan, langileen % 5ek eskatzen dio herritarrari hizkuntza aldatzeko; eta idatzizkoan berriz, % 23an ez dira eskubideak errespetatzen.
- Eskaintza aktiboa sustatzea lehen hitza eta lehen esaldia euskaraz esanez, edo euskaren aktibaziorako markaren bat erabilita.
- Euskararen erabilera ez-sexista eta inklusiboa bultzatu behar da.

Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea eta hizkuntza berdintasuna lortzea, herritar horiek Sektore Publikoarekin harremanetan jartzen direnean.

Herritarrekin ohiko harremana duten lanpostuetako langileek % 100ean artatzea herritarrak euskaraz.

2.1.2 arloaren adierazleak

2.1.2.24	Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen.	Helburua (H.2.1.2.24)	Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
			%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
			64.8		100		35.2	
2.1.2.25	Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz.	Helburua (H.2.1.2.25)	Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
			%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
			77.2		100		22.8	
2.1.2.26	Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira.	Helburua (H.2.1.2.26)	Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
			%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
			84.7		100		15.3	

2.1.2.27	Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen eta eskuratzen zaizkie dokumentuak.	Helburua (H.2.1.2.27)	Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
			%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
			77		100		23	
2.1.2.28	Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz.	Helburua (H.2.1.2.28)	Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
			%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
			89.9		100		10.1	
2.1.2.29	Herritarrek euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, ahoz.	Helburua (H.2.1.2.29)	Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
			%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
			37.7		50		12.3	
2.1.2.30	Herritarrek euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, idatziz.	Helburua (H.2.1.2.30)	Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
			%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
			Datu hauek 2023an zehar eskuratuko dira.					

2.2. eremua. LAN-HIZKUNTZA

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
55.8		65		9.8	

2.2.1 arloa. BARNE-HARREMANAK

Arloaren balorazio eta aurreikuspen kuantitatiboak:

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa

Arloari dagokion taula bete gabe dago haztapena egiteko datuak falta direlako; datu hauek 2023an zehar jasoko ditugu eta beraz, aurreikuspen bat egiteko aukera izango dugu.

Egoera:

- 10 bileretatik 3 egiten dira euskaraz.
- Barruko idatzizko komunikazioen artean, % 63,7 euskaraz edo ele bietan egiten da.

Egindakoak:

- Hizkuntza-irizpideak zabaldu ditugu euskara lan-hizkuntza ere bihur dadin.
- Hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketak (Euskaraldia) gero eta hedatuago daude langileen artean.

Indarguneak:

- Lan-bileretan 6 puntu egin du gora euskararen erabilerak.
- Lankideen arteko euskarazko ahozko harremanek 5 puntu egin dute gora.

Zer hobetuak:

- Oraindik ere, erakunde barruko gaztelania hutsezko idatzizko lan-komunikazioa % 27koa da.
- Lankideen arteko ahozko harremanen % 60 gaztelania hutsez da.

Helburu estrategikoa(k):

Barne-harremanetan euskararen erabilera areagotzea eta, aukera dagoenean, lana euskara hutsez egitea bermatzea.

2.2.1 arloaren adierazleak

2.2.1.31	Lan-bilerak euskaraz egiten dira.	Helburua (H.2.2.1.31)	Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
			%	Puntuazioa	%	%	Puntuazioa	%
			32.1		40		7.9	
2.2.1.32	Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da.	Helburua (H.2.2.1.32)	Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
			%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
			40.6		45		4.4	
2.2.1.33	Lankideen arteko ahozko harreman ez-formala	Helburua (H.2.2.1.33)	Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
			%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa

	euskaraz izaten da.	Datu hauek 2023an zehar eskuratuko dira.						
2.2.1.34	Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira.	Helburua (H.2.2.1.34)	Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
			%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
			63.7		75		11.3	
		Datu hauek 2023an zehar eskuratuko dira.						
2.2.1.35	Erakunde barneko prozedura administratiboak euskaraz jartzen dira abian.	Helburua (H.2.2.1.35)	Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
			%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
		Datu hauek 2023an zehar eskuratuko dira.						
2.2.1.36	Xedapen orokorrak euskaraz jartzen dira abian.	Helburua (H.2.2.1.36)	Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
			%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
		Datu hauek 2023an zehar eskuratuko dira.						
2.1.2.37	Lanari lotutako hizkuntza-paisaia euskaraz dago.	Helburua (H.2.2.1.37)	Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
			%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
			86.3		90		3.7	
		Datu hauek 2023an zehar eskuratuko dira.						

2.2.2 arloa. KANPO-HARREMANAK

Arloaren balorazio eta aurreikuspen kuantitatiboak:

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa

Arloari dagokion taula bete gabe dago haztapena egiteko datuak falta direlako; datu hauek 2023an zehar jasoko ditugu eta beraz, aurreikuspen bat egiteko aukera izango dugu.

Egoera:

- Sektore Publikoko erakundeekin euskarazko ahozko harremana % 48koa da; eta enpresa pribatuekin, aldiz, % 34koa.
- Sektore Publikoko erakundeekin ele bietako idatzizko harremana % 71koa da; eta enpresa pribatuekin, aldiz, % 47koa.

Egindakoak:

- Erakunde pribatuekiko administrazio-klausuletan, hizkuntza-klausulak txertatu eta bete egin dira, lan-hizkuntza euskara izan dadin.
- Sektore Publikoari atxikitako erakunde batzuetan ere hizkuntza-plangintza ezartzeko lanketa egin da.

Indarguneak:

- Sektore Publikoko erakundeekin, euskarazko ahozko harremanetan 6 puntu egin da gora; eta erakunde pribatuekin ere, 6 puntuko igoera egon da.
- Sektore Publikoko erakundeekin ele bietako idatzizko harremanek 7 puntu egin dute gora; enpresa pribatuen kasuan, 8.

Zer hobetuak:

- Sektore Publikoarekin % 16koa da euskara hutsezko komunikazioa; zenbateko hau handitzeko aukera egokiak daude.
- Enpresa pribatuekiko euskara hutsezko komunikazioa % 13koa da soilik.

Helburu estrategikoa(k):

Hizkuntza irizpideen arabera, Sektore Publikoko erakundeekin eta enpresa pribatuekin harremanak ohikotasunez euskaraz izatea.

Hizkuntza-klausulak betearazi behar dira, enpresa pribatuekiko harremanetan euskararen erabilera areagotzeko.

2.2.2 arloaren adierazleak

2.2.12.38	Sektore publikoko erakundeekin euskaraz egiten da ahozko harremana.	Helburua (H.2.2.2.38)	Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
			%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
			48.9		55		6.1	
2.2.2.39	Sektore publikoko erakundeekin euskaraz edota ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak.	Helburua (H.2.2.2.39)	Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
			%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
			77.6		85		7.4	
2.2.2.40	Enpresa pribatuekin euskaraz egiten da ahozko harremana.	Helburua (H.2.2.2.40)	Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
			%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
			34.45		40		5.55	

2.2.2.41	Enpresa pribatuekin euskaraz edo ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak.	Helburua (H.2.2.2.41)	Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
			%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
			46.7		55		8.3	

2.2.3 arloa. PRESTAKUNTZA

Arloaren balorazio eta aurreikuspen kuantitatiboak:

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa

Arloari dagokion taula bete gabe dago haztapena egiteko datuak falta direlako; datu hauek 2023an zehar jasoko ditugu eta beraz, aurreikuspen bat egiteko aukera izango dugu.

Egoera:

- Langileen laurden batek jasotzen du prestakuntza orokorra euskaraz.
- IVAPEko ikastaroen % 24,40 euskaraz eskaintzen da.

Egindakoak:

- Langileek euskaraz jasotzen duten prestakuntza orokorrean, 7 puntu egin da gora.
- Onartutako hizkuntza-irizpideetan 3. eta 4. hizkuntza-eskakizuna daukaten langileei prestakuntza euskaraz eskaintzea hobesten da.

Indarguneak:

- Eusko Jaurlaritzak urtean prestakuntzarako ematen dituen orduz gain, langileek euskara-maila hobetzeko ikastaroak aukeratzen badituzte, malgutasunez jokatu ohi da ikastaro horiek zenbatzeko orduan.

Zer hobetuak:

- Euskaraz egiten diren ikastaroen kopurua nabarmen igo behar da.
- IVAPEk euskaraz antolatzen dituen ikastaroak askotan bertan behera geratzen dira langile nahikorik ez duelako izena eman. Iaz, 224 ikastaro antolatu ziren euskaraz eta 185 burutu ziren; beste 39etan ez zen izen-emate minimora heldu.
- Ahal dela, 3. eta 4. HE daukaten langileak, euskarazko prestakuntzara bideratu behar dira.
- Baliabide informatikoei buruzko ikastaro eta aurkezpenak gaztelaniaz ematen dira ia gehienetan, baita langile guztientzako derrigorrezkoak direnak ere. Gauza bera gertatzen da gai oso "teknikoekin" ere.
- Zereginen arabera, langile multzo edo langile bakoitzari berariazko prestakuntza plana egin behar zaio; banakako hizkuntza-beharrak aztertu behar dira eta, horren arabera, bananako prestakuntza planak sustatu.

Helburu estrategikoa(k):

Lanpostu bakoitzaren funtzio komunikatiboetan oinarrituta, erakundeak laguntza eta baliabideak ematea langileek euskaraz lan egin dezaten.

Erakundeak euskarazko prestakuntza sustatzea erakundeak berak antolatzen duenean. Prestakuntza euskaraz eskaintzea eta beste erakunde batek antolatutakoa jaso behar dutenean, euskarazkoa aukeratuta.

2.2.3 arloaren adierazleak

2.2.3.42	Erakundeak euskaraz eskaintzen die prestakuntza orokorra langileei.	Helburua (H.2.2.3.42)		Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
			%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	
			Datu hauek 2023an zehar eskuratuko dira.						
2.2.3.43	Langileek euskaraz jasotzen dute prestakuntza orokorra.	Helburua (H.2.2.3.43)		Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
			%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	
			25.1		35		9.9		
			Datu hauek 2023an zehar eskuratuko dira.						
2.2.3.44	Hizkuntza-trebakuntza eskaini zaie langileei.	Helburua (H.2.2.3.44)		Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
			%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	
			Datu hauek 2023an zehar eskuratuko dira.						

2.2.4 arloa. BALIABIDE INFORMATIKOAK

Arloaren balorazio eta aurreikuspen kuantitatiboak:

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa

Arloari dagokion taula bete gabe dago haztapena egiteko datuak falta direlako; datu hauek 2023an zehar jasoko ditugu eta beraz, aurreikuspen bat egiteko aukera izango dugu.

Egoera:

- Ordenagailu berriak instalatzen direnean, gehienetan, aplikazioak gaztelaniaz ezartzen dira nahiz eta HOElen arabera euskaraz egin behar den. Gainera, eguneraketak egiten direnean, askotan, sistematikoki gaztelaniaz egiten dira.
- Langileen eskura dauden euskarazko aplikazio informatikoek 20 puntu egin dute gora.
- Langileek erabiltzen dituzten euskarazko aplikazio informatikoek 10 puntu egin dute behera.

Egindakoak:

- Hizkuntza-irizpideetan jasota dago programa, aplikazio, datu-base edo tresnen euskarazko bertsioa instalatuko zaiela 2. HE eta handik gorako euskara maila egiaztatuta duten langileei.

Indarguneak:

- Berariaz sortzen diren aplikazio informatikoak ele bietan sortzen dira.

Zer hobetuak:

- Sustatu egin beharko litzateke langileek sistema eragileen eta software estandarraren euskarazko bertsioak erabiltzea, eta horiei eustea.

Helburu estrategikoa(k):

Erakundeak baliabide informatikoak euskaraz sortzea, garatzea eta euskaraz erabilgarri daudenak instalatzen direla bermatzea. Horrez gain, neurriak hartzea baliabide informatikoak euskaraz erabil daitezen.

2.2.4 arloaren adierazleak

2.2.4.45	Erakundeak langileen eskura jartzen ditu euskaraz lan egiteko behar dituzten baliabide informatikoak.	Helburua (H.2.2.4.45)	Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
			%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
			41.8		50		8.2	
2.2.4.46	Langileek euskaraz erabiltzen dituzte euskaraz erabilgarri dituzten aplikazio informatikoak.	Helburua (H.2.2.4.46)	Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
			%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
			26.9		40		13.1	

2.2.5 arloa. SORTZE-HIZKUNTZA**Arloaren balorazio eta aurreikuspen kuantitatiboak:**

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa

Arloari dagokion taula bete gabe dago haztapena egiteko datuak falta direlako; datu hauek 2023an zehar jasoko ditugu eta beraz, aurreikuspen bat egiteko aukera izango dugu.

2.2.5.47	Langileek euskaraz sortzen dituzte dokumentuak.	Helburua (H.2.2.5.47)	Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
			%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
			49.1		55		5.9	